

Energia-
datuak

EUSKADI ENERGIA

2024

www.eve.eus

**ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA**
**ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Aurkibidea



Urteko laburpena: Adierazleak



2024ko Euskadiko energia-balantzea



2024ko emaitza nagusiak



Energien araberako azterketa



Azterketa sektoreka

Urteko laburpena: Adierazleak



Euskadi Energía 2024 izeneko dokumentu honetan, 2024ra eguneratutako **Euskadiko energia-datuak** biltzen dira. 1982tik gai horri buruz argitaratzen ari den serieari dagokio dokumentua. Txostenaren oinarriko informazioa hainbat energia-banatzaille, ekoizle, energia-transformadore eta kontsumitzaile handiengandik lortu da, baita EEEK berak egindako analisietatik ere. Jarraian, lurraldearen egungo egoera energetikoa laburbiltzen duten hainbat adierazle agertzen dira.

Energia-eskaria



Euskadi: Guztizko eskaria **% 2,3** igo da 2023koarekin alderatuta. Hala ere, eskaria eta azken kontsumoa azken 20 urteotako txikienetakoak dira.

Energia-autohornikuntzaren tasa: **% 8,8**koa da.

Energia-kontsumoa



Garraio sektorea: azken kontsumoaren **%48,0** da. Kontsumoari dagokionez, errekor historikoa. 2014an, sektore horren parte-hartzea % 37,4koa izan zen.

Banaketa sektorialean garraioaren igoera hori hainbat baldintza osagarri daudelako gertatzen da. Batetik, garraio-sektorearen kontsumoak goranzko joera du, eta, bestetik, beste sektore batzuen kontsumoak ere nabarmen egin du behera; batez ere, industria-sektorearenak.



Industria-sektorea: Serie historikoaren minimoa kontsumoan. Sektoreko Euskadiko mixaren pisua **% 32,8** da; azken hamarkadan, berriz, batez bestekoa % 36,6koa izan da.

2024an, 2023aren aldean, azpisektoreen kontsumoak behera egin du batez ere: Zementua, Beira, Elikadura eta Garraiobideen eraikuntza.

Azken hamarkadan, industria-azpisektore guztieen kontsumoak jaitsi egin dira. Jaitsierarik nabarmenenak azpisektore hauetan izan dira: Elikadura, Siderurgia eta galdaketa, Ez-burdinazko metalurgia eta Zementua.



Etxebizitza-sektorea: Etxebizitzako kontsumoa minimo historikoetan dago, eta, batez ere, gas naturalaren eta petrolioaren deribatuen kontsumoa murriztu da, klimatologia-faktoreagatik, neurri batean.

Energia-intentsitatea



Energia-intentsitatea **25 puntu** hobetu da azken hamarkadan. Industriaren ekarpen handia, bere intentsitate energetikoa **34 puntu** hobetuz.

Urteko laburpena: Adierazleak



Energia berriztagarriak



Kuota berriztagarria: Berriztagarriek azken kontsumoan izandako partaidetzak **puntu bat** egin du gora, eta **% 21,4** izatera iritsi da.

Potentzia berriztagarria: Instalaturako potentzia berriztagarri osoa **227 MW** handitu da 2020tik aurrera. Horrek esan nahi du **%27,3 hazi dela**. Azken urtean, **91 MW** energia berriztagarri gehitu dira, bai elektrikoak, bai termikoak.

- o Energia fotovoltaikoa nabarmen handitu da. **76 MW** instalatu dira, hots, instalatuta zegoena baino %59 gehiago.

Eskari berriztagarria: Sektoreka, 2024an jaitsi egin da garraio sektoreko eskaria, eta igo gainerakoetan (batez ere, energia-sektore, industria-sektore eta eraikinen eskaria).

Ekoizpena, teknologiaren arabera

- o Hidraulikaren (**%43**) eta eguzki-energiaren + aerotermiaren + geotermiaren (**%28**) igoera handia. Bioerregaien (**%22**) eta eolikoaren (**%10**) beherakada handiak.
- o Serie historikoaren ekoizpen eoliko baxuena.
- o Bertako ekoizpen berriztagarria, azken hamarkadako batez bestekoaren antzekoa. Elektrizitate-sorkuntza berriztagarriak pixka bat gora egin du.

Elektrifikazioa



Elektrifikazio-maila: Elektrifikazio-maila **%24,8** da. Balio hori ia konstante mantendu da azken hamarkadan. Industria da elektrizitate gehien kontsumitzen duen sektorea, Euskadiko kontsumo elektriko guztiaren **%57**. Gas naturala izan da energia-kontsumoaren beherakadarik handiena izan duena; izan ere, **%38** murriztu da azken hamarkadan.

Industria: maximo historikoa elektrifikazio-mailari dagokionez. Kontsumo elektriko guztizko kontsumoaren **%43** izanda.

Ondorio nagusiak

EAEko egoera energetikoa eraldaketa sakonak bizitzen ari da azken urteotan.

- Azken energia-kontsumoan energia berriztagarrien parte-hartzea **%21,4** da, neurri handi batean, autokontsumo elektrikoaren potentzia **76 MW** handitu delako. Ehuneko hori bat dator Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legean 2030erako ezarritako **% 32ko** helburuarekin.
- Energia elektrikoak serie historikoko industria-sektorearen parte-hartzerik handiena lortu du, kontsumo osoaren **%43** izanda, eta deskarbonizazioaren bidean aurrera eginez.
- Erakundeek garraio pribatuaren erabilera murrizteko ahaleginak egin arren, garraio-sektorearen kontsumoak hazten jarraitzen du etengabe, eta gaur egun energia gehien kontsumitzen duen sektorea da, azken kontsumoaren **%48** izanik.
- Euskadiko sektore kontsumitzaileetan energia-eraginkortasunean egindako jarduerak emaitza ona eman dute, eta, hala, energia-intentsitate globala **25 puntu** hobetu da azken hamarkadan. Energia-intentsitatea gehien hobetu duen sektorea industria izan da, **34 puntu** hobetu baitu epe berean.

2024ko Euskadiko energia-balantzea




Energia-balantzea energia-iturri guztien energia-ekarpenen, horien transformazio-galeren eta eskualde jakin batean denbora-tarte batean erabiltzeko moduen zerrenda zehatza da. Aurkezten den Euskadiko energia-balantzea EUROSTAT Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak garatutako *metodologiaren* arabera eginda dago.

Balantzea hiru ezagutza bloketan banatzen da:

1. Eskuragarria/Sarrerak
2. Eraldaketa
3. Erabilera/Irteerak

ktep	Ikatza eta deribatua ¹	Petrolio eta deribatua ¹	Gas naturala	Energia eratorria ¹	Berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
Energia primarioaren ekoizpena	0	0	0	28	580	0	608
Inportazioak	21	8.298	4.050	0	7	758	13.134
Stock-mugimenduak	0	20	98	0	0	0	118
Esportazioak	0	5.460	2.324	0	78	0	7.862
Barne-kontsumo erabilgarria gorbinerako	21	2.858	1.825	28	509	758	5.998
Sarrerak eraldaketetan	0	8.370	831	11	128	0	9.340
Eraldaketa-irteerak	0	8.234	0	0	0	447	8.681
Trukeak	0	0	0	0	-71	71	0
Energia sektorearen kontsumoa	0	317	170	0	0	100	587
Garraio eta banaketaren galerak	0	0	0	0	0	41	41
Azken kontsumorako erabilgarria	21	2.405	824	17	311	1.136	4.712
Energia ez den azken kontsumoa	0	139	0	0	0	0	139
Azken energia kontsumoa	21	2.266	824	17	311	1.136	4.573
Industria	21	97	580	17	140	645	1.498
Garraioa	0	2.066	1	0	109	18	2.193
Nekazaritza eta arrantza	0	28	1	0	1	4	35
Zerbitzuak	0	17	56	0	12	270	356
Etxebizitza	0	58	186	0	48	199	491



2024ko emaitza nagusiak




1. Barne-kontsumo gordina


Euskadiko **barne kontsumo gordina %2,3 igo da**, 2023ko datuekin alderatuta. **Gas naturalaren** kontsumoak izan du **gehikuntza handiena** (%5,0); elektrizitate-inportazioek, berriz, %0,7 egin dute behera.

Petrolioaren deribatuen parte-hartzeak gailentzen jarraitzen du, barne-kontsumo gordinaren **%47,6** baita.

Barne-kontsumo gordinaren bilakaera, energien arabera




Mix energetikoa




Gas naturala energia-sektorean kontsumitzen da batez ere (% 54,9), **petrolioaren deribatuak**, berriz, **garraioan** (% 72,3) eta **energia elektrikoa industrian** (% 50,5).

Kontsumoaren banaketa energien eta sektoreen arabera



Kontsumoaren banaketa, sektoreen eta energien arabera



Sektoreka, industriako kontsumo-osagai nagusiak **gas naturala** (%38,7) eta **elektrizitatea** (%43,0) dira, **eraikinen sektorean** bezala (%28,4 eta %55,1, hurrenez hurren). **Garraio-sektorean, petrolioaren deribatuak** %94,2 dira.


2024ko emaitza nagusiak




2. Autohornikuntza-tasa

Autohornikuntza-tasa (energia primarioaren ekoizpena, barne-kontsumo gordinarekiko) %8,8koa izan da. Ekoizpen hori energia berriztagarrietan oinarritzen da batez ere, eta 2024an handitu egin da aurreko urtearekin alderatuta.

Energia-autohornikuntzaren tasa



Energia elektrikoaren autohornikuntza-tasa




Elektrizitatearen autohornikuntza-tasa %40,1ekoa izan da. **Gas naturaleko ziklo-konbinatuan (%55,6), kogenerazio fosilean (%24,7) eta energia berriztagarrietan (%19,7)** banatu zen bertako sorkuntza.


3. Azken energia-kontsumoa

Euskadiko **azken kontsumoa %1,0 igo** da, 2023ko datuekin alderatuta. 2024an, gas naturalaren eta energia berriztagarrien kontsumoak **%1,7 eta %7,9 murriztu** dira, hurrenez hurren. Bestalde, petrolioaren deribatuen eta energia elektrikoaren kontsumoa **%3,4 eta %0,5 igo** da.

Azken kontsumoaren bilakaera, energien arabera



Azken kontsumoaren banaketa




2024ko emaitza nagusiak




3. Azken energia-kontsumoa

Industria-sektoreko eta zerbitzuen sektoreko kontsumoak dira **jaitsierak** izan dituzten bakarrak (%2,1 eta %0,4, hurrenez hurren). Gainerako sektoreen kontsumoak **gora** egin du, hurrengo proportzioetan: **etxebizitza-sektorea (%2,5)** **garraio-sektorea (%2,8)** eta **nekazaritza eta arrantza (%16,0)**. Garraioaren sektoreak Euskadiko sektore kontsumitzaileena izaten jarraitzen du.

Azken kontsumoaren bilakaera, sektoreka




Azken kontsumoaren banaketa




Energia-intentsitatearen bilakaera (2014 = 100)

2024an, Euskadiko azken **energia-intentsitatea** 2023koa baino **puntu 1 hobea izan zen**, BPGaren unitateko kontsumitutako energiari dagokionez. Hamarkada osoan **eraginkortasun handiagorako joera** erakutsiz.



Elektrifikazio sektorialaren mailaren bilakaera

Jarduera-sektoreen **elektrifikazio-maila** neurtzeko, energia elektrikoak sektore horretako azken energia-kontsumoarekiko duen parte-hartzearen **% ratioa** erabiltzen da. 2024an, EAE osoko azken kontsumoaren gaineko **partaidetza elektrikoa % 24,8 izan zen**.




2024ko emaitza nagusiak




4. Faktura energetikoa

2022. urtean **energiaren faktura** asko igo ondoren, 2023 eta 2024 urteetan nabarmen jaitsi da, **6.682 milioi eurora** iritsita. Kostu horretatik, **%57,3 garraio** sektoreari dagokio, **%20,4 industriari**, **%11,9 etxebizitza** sektoreari, **%9,8 zerbitzuei** eta **%0,7 lehen sektoreari**.

Faktura energetikoaren bilakaera



Etxebizitza-sektorearen energia-faktura



Etxe bakoitzeko faktura %0,4 igo da, 2023. urtekoarekin alderatuta, eta 850 eurora iritsi da etxe eta urte bakoitzeko.


Energien araberako azterketa



1. Petrolioaren deribatuak

2024an, petrolioaren **deribatuen azken kontsumoa** % 3,4 igo da, eta **barne-kontsumo gordina** % 1,8, 2023koaren aldean.


Petrolioaren deribatuen barne-kontsumo gordina eta azken kontsumoa




2024ko **aldakuntzarik handienak** hauek izan dira: **A gasolioaren eta gasolinaren** kontsumoak **gora** egin du 2023ko datuekin alderatuta (% 6,0 eta % 7,8, hurrenez hurren), eta **PGLek eta B eta C gasolioek behera** egin dute (% 16,3 eta % 6,1, hurrenez hurren).

Petrolioaren deribatuen eskaria batez ere **garraio-sektorean** dago kontzentratua (guztizkoaren %76,0), eta **energia-sektorea** dator ondoren (% 16,7).

Petrolioaren deribatuen eskaria, produktuen arabera



Petrolioaren deribatuen eskaera, sektoreka



Energiaren azterketa




2. Gas naturala

Gas naturala EAEko energia-eskari osoaren %30,4 da.

2024an, *gas naturalaren eskaria*, 2022an *ziklo konbinatuak* eta *kogenerazioak* nabarmen ekoiztu ondoren, bakarrik %5,0 handitu zen, 2023. urtean izandakoaren aldean.


Gas naturalaren barne-kontsumo gordina eta azken kontsumoa



Eskariaren erdia, gutxi gorabehera, *industria* eta *fintze*-sektoretik dator (%46,2). Sektore horrek izan ditu kontsumo-aldaketa handienak, 2023koekin alderatuta. %8,1 igoz.

Energia-sektorearen kontsumoa hazi egin da 2023koarekin alderatuta, proportzio honetan: *zentral termoelektikoak* (%4,7) eta *kogenerazioa* (%2,1). Bestalde, *zerbitzuen sektorea* eta *bizitegi-sektorea* %5,1 eta %1,0 murriztu dira, hurrenez hurren.

Gas naturalaren eskaria sektoreka




Energien araberako azterketa




3. Energia berriztagarriak

Energia berriztagarrien aprobetxamendua 509 ktpb izan da 2024an, 2023an baino %0,4 txikiagoa. Hidroelektrikoa %42,8 handitu da, eguzki-energia fotovoltaiko, eguzki-energia termikoa, aerotermita eta geotermia %28,4, eta biomasa %4,2. Bestalde, bioerregaiak %22,0 murriztu dira, eta eolikoa %9,6.


Energia berriztagarrien aprobetxamendua



Energia berriztagarri autoktonoen kontsumoaren banaketa



Energia berriztagarrien eskaria sektorearen arabera



2024an, 2023arekin alderatuta, **76 MW** handitu da **fotovoltaikoaren potentzia instalatua**, **3 MW geotermia**, **9 MW aerotermita**, **3MW biomasa termikoa** eta **eguzki-energia termikoa mila m2**.

Energia berriztagarrien ahalmen elektriko instalatua

	2010	2015	2020	2024
Fotovoltaikoa (MWp)	22	25	60	206
Eolikoa (MWe)	153	153	153	153
Hidroelektrikoa (MWe)	173	173	173	173
Biomasa (MWe)	75	72	83	103
Itsas energia (MWe)	0	0,3	0,3	0,3

Energia berriztagarrien gaitasun termiko instalatua

	2010	2015	2020	2024
Geotermia (MWg)	6	15	22	29
Eguzki-energia termikoa (mila m2)	39	68	90	92
Biomasa termikoa (MW)	18	96	116	121
Aerotermita (MW)	129	141	160	207


Energiaren araberako azterketa




4. Energia elektrikoa

Energia elektrikoaren kontsumoa, Euskadin, ia aurreko urtean bezala mantendu zen 2024an, %0,5eko igoera txiki batekin. Energia elektrikoa energiaren azken kontsumoaren % 24,8 da.

Energia elektrikoaren jatorri-mixa



Energia elektrikoaren jatorri-mixa




Ekoizpen elektrikoa %4,6 igo da Euskadin, eta eskariaren %40,1 asetu du.

Aldaketa nagusia ekoizpen berriztagarrien hazkundera eragin du: %20,9 hazi da. Ziklo konbinatuak eta baterako sorkuntzak %1,5 eta %0,7 baino ez dira igo, hurrenez hurren.


Inportazioei dagokienez, **elektrizitate berriztagarrien inportazioek gora** egin dute (%12,4) eta **berriztagarriak ez diren inportazioek behera** (%14,9).

Industria-sektorea da energia elektrikoaren kontsumitzaile nagusia (%56,8).

Azken energia elektrikoaren kontsumoa, sektoreka



Ekoizpen elektriko berriztagarria



Sorkuntza elektriko berriztagarri autoktonoa dela eta, aldaketa garrantzitsu batzuk izan dira aurreko urtearekin alderatuta. **Eguzki-energia fotovoltaikoaren bidez sorkuntza elektriko gehiago sortzeak (%65,8) eragin du aldaketa nagusia.** Hidroelektrikoa eta biomasa bidezko elektrizitate-sorkuntza ere %42,8 eta %9,6 handitu dira, hurrenez hurren. Bestalde, Euskadiko **eolikoak %9,6 murriztu** du bere sorkuntza.

Azterketa sektoreka




1. Industria


EAEko **industria-sektorearen** azken energia-kontsumoa **%2,1 jait**si da, aurreko urtearekin alderatuta. **Petrolioaren deribatuak %26,7 murriz**tu dira, eta **gas naturala %1,6**. Bai **elektrizitate** kontsumoa, bai **energia berriztagarriak %0,8** eta **%1,9** hazi dira.

Bost azpisektorek² industriako kontsumo osoaren **%74,9** ordezkatzen dute.

Kontsumoa industrian, energien arabera



Industriaren energia-intentsitatea (2014 = 100)




Industriaren **energia-intentsitatea 34 puntu hobetu** da, duela hamar urte izandakoarekin alderatuta; izan ere, energia-kontsumoa 28 puntu jait

2. Garraioa


Garraioaren energia-kontsumoa Euskadi osoko **azken kontsumoaren % 48,0** da, eta **%2,8** igo da 2024an, 2023koarekin alderatuta. Garraioan kontsumitzen den **energiaren %94,2 petroliotik eratorritakoak** dira.

Errepideko garraioan, ibilgailu elektrikoaren erabilera gora egin duen arren, **kontsumo elektrikoa** guztizkoaren **%1** baino ez da. **Bioerregaiak % 6** izan ziren.

Kontsumoa garraioan, energien arabera



Garraioaren energia-intentsitatea (2014 = 100)



Garraioaren azpisektore guztiek behera egin dute kontsumoan, **errepideko garraioak** izan ezik, **% 4,2** igo zen. **Errepideko garraioaren** kontsumoa sektorearen **% 93,5** da.

²: Siderurgia eta galdaketa, Papera eta kartoia, Makinak, metalezko transformatuak eta forja, Zementua eta Industria kimikoa.


Azterketa sektoreka




3. Zerbitzuak

Zerbitzuen sektorearen kontsumoa %0,1 jaitsi da, aurreko urtearekin alderatuta. Kontsumo hori Euskadiko **azken kontsumoaren % 7,8** da.

Energia-kontsumoa zerbitzuen sektorean



Energia-intentsitatea zerbitzuen sektorean (2014 = 100)




Zerbitzuen sektoreko energia-intentsitatea 8 puntu hobetu da 2024an, aurreko urtearekin alderatuta.


4. Etxebizitza-sektorea

Etxebizitza-sektorean, energia-kontsumoa **%2,9 igo** da 2024an, eta **azken kontsumoaren % 10,8** izan da.

Etxebizitza-sektoreko kontsumoa, enjien arabera



Kontsumoa biztanleko eta etxeko etxebizitza-sektorean



Energia berriztagarrien, elektrizitatearen eta petrolioaren deribatuen kontsumoak **hazi** dira, **%2,2, %1,8 eta %22,8 igo** da, hurrenez hurren, 2023ko datuekin alderatuta.

Euskadin, **etxeko urteko kontsumoa %1,9 igo** da 2024an, aurreko urtearekin alderatuta.

Terminoen glosarioa

Energia-autohornikuntza (autohornikuntza-tasa) - Energia-iturri baten edo energia-iturri guztien berezko ekoizpenaren eta energia-iturri horren edo lehen mailako energia-iturri guztien kontsumo osoaren arteko erlazioa.

Energia-kontsumo gordina (barne-kontsumo gordina) - Lurraldearen barruko energia-kontsumoa eta -transformazioa asetzeko energia-kopuru osoa. Gainera, eskualde arteko energia-mugimenduak eta izakinen aldaketak ere kontuan hartzen ditu. Honela kalkulatzen da: ekoizpen propioaren, inportazioen eta esportazioak kentzen zaizkion existentzia-aldakuntzaren batura. Kontsumo gordina = ekoizpena + inportazioak + izakinen aldakuntza - esportazioak.

Energia-kontsumoa - Herrialde edo eskualde batean gastatutako energia-kantitatea. Energia primarioak edo azken energiak izan daitezke. Lehen kasuan, lehen mailako iturrien kontsumoak batzen dira (ikatz, petrolio, gas naturala, energia nuklearra, energia hidraulikoa eta beste energia berriztagarri batzuk). Bigarren kasuan, berriz, sektore ekonomikoek kontsumitutako energien batura.

Energia-intentsitatea - BPGaren unitate bakoitzeko azken energia-kontsumoa. Energia-eraginkortasuna neurtzeko erabiltzen den ratioetako bat da.

Petrolio-tona baliokidea (tpb) - Petrolio-tona bat erretzean sortzen den antzeko energia-kantitatea. Gehien erabiltzen diren multiploak kilotona petrolio baliokideak (ktep) dira, 1.000 tep, eta megatona petrolio baliokideak (Mtep), 1.000.000 tep.